

<b>Irakasgaiaren izena</b>	<b>Kodea</b>	<b>Ikasturtea</b>
Ikerketa metodoak eta teknikak	141203	2024-2025
<b>Titulazioa</b>	<b>Maila</b>	<b>Sehilekoa</b>
Gradua Lehen Hezkuntzan	1	2
<b>Irakasgai mota</b>	<b>ECTS Kredituak</b>	<b>Hizkuntza</b>
Oinarrizkoa	6	euskara
<b>Irakaslea(k)</b>		
Iñigo Arteatx ( <a href="mailto:iarteatx@deusto.es">iarteatx@deusto.es</a> )		

### Justifikazioa

Gaur egun ukaezina da ikerketak duen garrantzia ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren hobekuntzan. Alde batetik, irakasleen prestakuntzarako baliabidea delako; eta beste aldetik, maila guztietako irakasleen eginkizuna ere badelako. Hori dela eta, ezinbestekoa da etorkizuneko irakasleei oinarrizko formazioa eskaintzea, hezkuntza-errealitatea maila ezberdinetan aztertu eta interpretatzeko.

Ikasgai honek, hauek ditu helburu:

- informazio jasotzeko, testuinguruari eta helburuari ondoen egokitzen zaion tresna aukeratzeko ikastea
- datu esanguratsuenak aukeratu eta erabiltzeko ikastea
- ikerketa-emaitzak modu egokian irakurtzeko ikastea

### Aurrebaldintzak

Ez dago aurrebaldintzarik.

## Gaitasunak

### Gaitasun orokorrak

- CG1- PENTSAMENDU KRITIKOA:  
Lehenengo menderatze maila: nor bere buruari inguruko errealitatearen gaineko galderak egitea eta errealitate horren inguruko eztabaidetan aktiboki parte hartzea, ematen diren iritzia aztertuz eta norbere eta besteen erabakien ondorioen gainean hausnartuz

### Berriazko gaitasunak

- Hezkuntza-ikerkuntzako berezko oinarriko terminologia zuzen erabiltzea.
- Hezkuntza-ikerkuntza prozesuko faseak eta beren betekizunak argi eta garbi identifikatzea.
- Hezkuntza-ikerketarako oinarriko teknikak ezagutzea, eta kasuan kasuko teknika egokia aplikatzea.

## Edukiak

1. Ikerketa-metodoen oinarriak
2. Ikerketa-ereduak (kuantitatiboa eta kualitatiboa)
3. Ikerketa-tresnak eta haien ezaugarri nagusiak (inkesta, sakoneko elkarrizketa, eztabaida-taldeak, behaketa, edukien azterketa, Delphia...)
4. Ikerketa-txostena (atalak, ezaugarri orokorrak eta atalkakoak, formatuak...)
5. Ikerketa-emaitzak nola aurkeztu



## Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' helburuen presentzia ikasgaietan



### 4. GJH. Kalitatezko hezkuntza.

### 5. LSH. Hezkuntza ekologikoa

Metodologiak, teknikak, sasi-metodologiak eta askotariko baliabideak ikaragarri ugaritu diren garai honetan, ezinbestekoa da irakasleak argi izatea zertan dautzan ebidentzietan oinarritutako baieztapenak, zein irizpide bete behar dituzten iturriek fidagarritzat jotzeko, eta nola bereizi ezagutza eta iritzia. Ikerketaren oinarrietan sakonduz, eta horiek praktikan jarrita, ikasleek arlo horiek lantzeko estrategiak garatuko dituzte ikasgai honetan.

## Ikaskuntza-irakaskuntza estrategiak

Ikasgaien lortu behar diren konpetentziak honako estrategiak erabiliz landuko dira:

- Ikasgaien landu behar diren gaiak testuinguruan kokatzeko jarduerak: zenbait aurkezpen-saios gain, ikasleek askotariko materialak irakurri beharko dituzte zeinek bere gaia testuinguruan jartzeko.
- Gogoetarako jarduerak: ikerlana planteatzea, ikerketaren helburuei ondoen egokitzen zaizkion tresnak aukeratu, irakurgai egokiak aukeratu eta eduki esanguratsuak aukeratu, eta ikerketaren emaitzak interpretatu beharko dira.
- Kontzeptualizazioa: lantzen diren irakurketetako edukiak eta kontzeptuak ulertu, barneratu eta ekoizpen berriak sortzeko erabiliko dira.
- Jarduera praktikoak: ikasgaiaren izaera praktikoa da nagusiki; ikasgelan azaldutakoak ikerlana egituratu eta gauzatzeko erabili beharko dira, bakarkako zein taldekako jardueretan.
- Ebaluazio jarduerak: ikerlanaren emaitzak eta ikerketa-emaitzen aurkezpena (ahozkoa eta idatzizkoa) ebaluatuko ditu irakasleak; ikasleek talde-lana ebaluatuko dute, eta orobat, irakaslearen lana eta ikasgaiaren garapena.

Klaseetan landutakoak ez dira klasetik kanpo berriro landuko, tutoretza-saioretan (bilera horiek klaseetan landutakoak argitzeko edo horietan sakontzeko erabil daitezkeen arren). Tutoretza posta elektronikoz egin ahal izango da, helbide honetara idatzita: [iarteatx@deusto.es](mailto:iarteatx@deusto.es) edota aurrez aurre, **hitzordua adostutakoan**.

## Ebaluazioa

### 1. Ikerketa-txostena

#### Edukia

Ebaluazioa ikerketa-txostenean oinarrituko da. Ikasgaia gainditzeko, ezinbestekoa izango da ikerketa-txostena ebaluatzeko irizpideak gainditzea, eta baita konpetentzia orokorrarekin berariaz lotutako itemak ere (horiek ikerketa-txostena ebaluatzeko irizpideen artean daude jasota eta azken kalifikazioaren % 69 osatzen dute). Zehaztasun gehiagorako ikus <https://sites.google.com/deusto.es/imt-ebaluazio-irizpideak/idatzizko-txostena?authuser=0>

## Hizkuntza-maila

Gaiztatzeko, ezinbestekoa izango da hizkuntza-maila egokia izatea. Erakutsitako hizkuntza-mailak eragina izan dezake azken emaitzan, eta edozein kasutan, ekoizpen guztietan eskatuko da gutxieneko zuzentasun eta aberastasun maila bat, delako ekoizpena ontzat emateko.

Hizkuntza-maila egokia azaltzen ez duen lanak **ez du bestelako feedbackik jasoko** eta zuzenean joango da hurrengo deialdira.

**Eskatutako maila erakusten ez duen lana ez gaiztatzat joko da automatikoki.**

## Plagioa

Lanean zehar plagiorik antzemanaz gero (dela literala, dela ideiena), eta dena delakoa izanik ere haren luzera, lanak **ez du bestelako feedbackik jasoko** eta zuzenean joango da hurrengo deialdira.

**Inolako plagiorik antzemanaz gero, lana ez gaiztatzat joko da automatikoki.**

## Koebaluazioa

Talde bakoitzak 10 puntu izango ditu taldekide bakoitzeko (4 kideko taldeek, 40 puntu; 5 kideko taldeek, 50 puntu), eta egindako lanaren arabera banatuko dituzte haien artean, denen artean **adostu ondoren**. Taldekide bakoitzaren kalifikazioa jasotako puntuen arabera egokituko du irakasleak.

### 2. Emaitzen aurkezpena

Behin ikerketa amaitutakoan, nahi duen taldeak aukera izango du ikerketa-emaitzak ikaskideen aurrean aurkezteko. Aurkezpenak puntu gehigarriak eskuratzeko aukera emango du (gehienez, 1,0 puntu), baldin eta ikasgaia gaiztatu bada, eta aurkezpenak beharrezko baldintzak betetzen baditu.

### 3. Azterketa

Ikasgaian zehar, banakako azterketa praktikoak egingo dira, ikerketa txostena osatzen duten atalekin lotutakoak.

Ikerketa-txostenak %90eko pisua izango du azken kalifikazioan eta banakako azterketak, %10ekoa, baina

ezinbestekoa izango da biak gainditzea.

## **Ezohiko deialdia**

Lehenengo deialdian gainditzen ez duen ikaslea bigarren deialdira joango da gainditu gabeko atalarekin. Ezohiko deialdian ez da egongo ahozko aurkezpenik egiteko aukerarik. Ezohiko deialdian gainditu ezean, ez da kalifikaziorik gordeko hurrengo urterako, eta ezin izango da egindako lana berriro aurkeztu. Hortaz, ikerketa berria egin beharko da goitik behera.

## **AA eta itzultzaile automatikoen erabilera**

Adimen artifizialaren eta itzultzaile automatikoen erabilera irakaslearekin adostuko da, eta ezein kasutan ezin izango du ordezkatu ikaslearen sorkuntza-lana. Itzultzaile automatikoa ezin izango da erabili ikasleak gaztelaniaz sortutako materialik euskaratzeko.

AAren eta itzultzaile automatikoaren erabilera sortutako materialean bertan azaldu beharko da.

## **Dokumentazioa**

Juaristi Larrinaga P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

[hemen eskuragarri: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf>]

(Beste material batzuk beharren arabera zehaztuko dira kurtsoan zehar)